



# **Etxebizitza** **politika** berri baten beharraz

2025eko Eusko Jaurlaritzaren  
aurrekontuen negoziaketan  
EH Bilduk etxebizitzan  
mahaigaineratutako  
proposamena

**ehbildu**



# Etxebizitza politika berri baten beharraz

## 2025eko Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuen negoziaketan EH Bilduk etxebizitzan mahaigaineratutako proposamena


**E**txebizitza da gaurko euskal gizartearen kezka nagusieta-ko bat. Bada bai kezkarako nahikoa motibo, datuek hala dioskute. EAEko aurrekontuen eztabaidaren kariatara gobernukideek hala ihardetsi digute: *EH Bildurengandik bereizten gaituena eredia da, bi eredu daude hemen parez pare, kontraerriak*. Eta agian bai, hala izango da, etxebizitzaren arloan eredu desberdinak ditugula. Baina ez ote den baieztapen hori arinegia, ez ote den eztabaidan ez sakontzeko saiakera bat, muinari heldu nahi ez izatea, eztabaida alderdien arteko ohiko konfrontazio politiko edukiz hustua bilakatzeko nahikeria, debatea gizartea politikatik hainbeste urruntzen duen terrenora eramatea.


Har dezagun gaia serio, etxebizitzarekin gertatzen ari dena baita kontratu sozialaren hausturaren adibiderik gordinena, neoliberalismoaren porrotaren kasu paradigmaticoa, eta ondorioz, herri-erakundeen partetik erantzun sendo bat eskatzen duen garaiko problema larria.

## Etxebizitza merkatua kontrolatik kanpo

Hasteko, analisi pixka bat. Izan ere, etxebizitzaren prezioen gorakadaren atzean, batez ere, eskaintza arazo bat dagoela diosku diskurtso ofizialak. Diagnosi horretatik eratortzen den soluziobidea, finean, eskaintza areagotzea da; uler bedi, batez ere, eraikuntza sustatzea. Izan ere, diskurtso honen arabera, merkatua- ren eskaintza eta eskariaren legeak aterako gaitu ataka honetatik. Hau da, ez da inondik ikusten merkatua- ren porrotik, aitzitik, merkatua- ren logikan sakon- duz egin nahi zaio aurre egoerari. Baina hori, hautu ideologiko bat izateaz gain, zehaztasun gutxiko azterketa da, analisi alperra, datuek adierazten dutenez.

Zer da etxebizitzaren merkatuan gertatzen ari dena? Arazoa globala da. Azken hamarkadan, ELGako herrialdeetan etxebizitzaren prezioak % 95 egin du gora batez beste (% 41 inflazioa deskontatuz gero) 2007ko burbuilaren mailara iris- teraino, familien diru-sarrerak % 16 igo diren bitartean. Ondorioz, etxebizitza ordaintzeko egin beharreko ahalegin ekonomikoa izugarri hazi da. Errealitate honek ez du esplikazio bakarrik, baina, Europan negu demografiko betean gau- delarik, segurtasunez esan dezakegu ez dela eskaintza arazo bat, edo gutxienez, ez dela inolaz ere eskaintza arazo huts bat, baizik eta bestelako faktore batzuk ari direla determinatzen prezioen gorakada hau.





Izan ere, eraikuntzari loturiko inbertsioa 2007ko burbuilaren mailara iritsi da dagoeneko EB-27an. Hau da, eraikuntza erreperatu egin den bitartean (herrialdeen artean diferentziak badiren arren) prezioek goraka jarraitu dute eten-gabe. Kausak beste nonbait bilatu behar dira, beraz.

Hain zuzen ere, gako nagusia etxebizitza merkatuaren finantzaziazioa da, hau da, etxebizitza inbertsio aktibo bat bilakatu izana: etxebizitza geroz eta gehiago da titulu finantzario bat eta gutxiago funtzio sozial bat betetzen duen ondasuna. Izan ere, interes tipoak hain baxu mantendu dituen azken 15 urteetako politika monetarioak aktibo finantzario tradizional batzuen errentagarritasuna gutxitu du, eta ondorioz, kapital fluxuak etxebizitza merkatura bideratu dira: Espainiako Bankuaren arabera, 2024ko lehen hiruhilekoan, etxebizitza baten erosketak % 9,7ko errentagarritasuna izan zuen estatu espainiarrean. Gainera, eskariak asko egin du gora nazioarteko turismoaren dinamikaren ondorioz: 2005etik gaur egunera 700 milioetatik 1.500 milioitara igo dira nazioarteko turismo mugimenduak estatu espainiarrean, bereziki hiriguneei eraginez.

Ondorioz, bestelako neurri batzuk hartzen ez badira, etxebizitza gehiago eraikitzeak ez du zertan prezioak jaitsiarazi, 2000-2007ko burbuilaren zikloan frogatu zenez gero. Eta, begi-bistakoa denez, interes tipoak igotzea ez da soluzio bat.

Diskurtso ofizialak darabilen bigarren argudioa da erregulazioak (prezioen kontrolak) ez duela funtzionatzen, eskaintza murrizten duela, alokairu eskaintza

urriaren erantzule egiteraino. Institut d’Economia de Barcelonako (IEB) ikerketa batek frogatu berri du nola Katalunian 2020an martxan jarri zen prezioen kontrolak balio izan zuen batez besteko alokairuaren prezioa % 4-% 6 artean jaisteko alokairu eskaintza murriztu gabe ([J. Jofre, R. Martínez y M. Segú, Effectiveness and supply effects of high-coverage rent control policies](#)). Gogoratu dezagun prezioen erregulazioa bi urtez egon zela indarrean Katalunian Auzitegi Konstituzionalak legea baliogabetu zuen arte. Halaber, Generalitatearen azken datuek erregulazioak prezioak jaitsiarazi ditzakela baieztatzen dute, baina baita legeari iskin egiteko saiakerak neutralizatu behar direla ere (etxebizitzak denboraldiko alokairura eta alokairu turistikora bideratzea), zeina gauza erraza zatekeen har-tarako borondate politikorik balego.

Ondorioz, diagnosi zuzena ez da prezioen gorakadaren oinarrian eskaintza arazo bat dagoela eta prezioen kontrolak eskaintza are gehiago murrizten duela, baizik eta, funtsean, etxebizitza merkatuaren finantzarizazioak, hots, logika neoliberalak, kontrolik gabeko dinamika espekulatibo bat sortu duela, beste behin ere.

### **Etxebizitza politikaren porrota**

Alokairu merkatuaren estatistikak (EMAL), zeina alokairu kontratuak erregulizatzen direnean Eusko Jaurlaritzan gordailutzen diren fidantzen bidez osatzen den, zera adierazten du: 2016tik gaur egunera alokairuek % 27 inguru egin dute gora Euskal Autonomia Erkidegoan (170 euroko hileko errenta igoera). Bestalde, INEren datuek erakusten dutenez, salerosketa prezioek % 10 egin dute gora urte honetan zehar, Estatu mailan % 9,3koa izan da igoera.



Ondorioz, Etxebiden izena emandako herritarren kopuruak % 46 egin du gora azken urte eta erdian, 100.000 herritarren langa aise gaindituz. Etxebideko eskatzaileen profila aztertuz gero, hainbat ondorio esanguratsu atera daitezke: Eskatzaileen % 85a jada emantzipatuta dauden pertsonak dira, prezioen gorakadaren ondorioz merkatu librean alokairua ordain ezin dezakeen jendea; Zerrenda honetako pertsonen ia herenak etxebizitzaz aldatu behar izan du azken bi urteetan alokairuaren prezioari aurre egin ezin izanagatik; Etxebiden izena emanda dauden pertsonen beren diru-sarreraren % 45 bideratu behar dute alokairua ordaintzera batez beste (gehienez ere % 30 beharko lukenean), eta hori % 46ak diru-laguntza publikoren bat jasotzen duela.

Datu hauekin mahai gainean, honakoa da argazkia: Etxebizitzaren prezioak gora eta gora ari dira, soldaten igoeren oso gainetik, eta ondorioz, alokairu babestua-ren beharrean dauden herritarren kopuruak izugarri egin du gora urtebetean. Errealitate honek larrialdi egoera bat marrazten du: Etxebizitza larrialdian gau-

de eta, instantzia ofizialetatik aitortzen denez, egoerak okerrera egiten jarraituko duela aurreikusten da.

Eta prezioak etenik gabe goraka egin duten bitartean, zer gertatu da prestazioekin? Etxebizitza prestazio ekonomikoa eta etxebizitza prestazio osagarria (orain artean Enplegu Sailak kudeatu duena eta orain Etxebizitza Sailera pasatzen hasi dena) kanpo utz ditzagun soilik gazteei zuzendutako diru-laguntzei erreparatze-ko (Gaztelagun eta Emantzipa). Hurrengo bi grafikoek azken urteetan bi diru-laguntza hauen bilakaera zein izan den agertzen dute.

Gazteei bideratutako prestazioen bilakaera  
(Gaztelagun eta Emantzipa)



Ikus daitekenez, modu ikusgarrian hazi da prestazioetara zuzendutako diru publikoa. Eta, prestazioez gain, beste 300 M euro doaz erosketagatiko kenkarian. Hau da, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren aurrekontu osoa (446 M euro) baino gehiago gastatzen da diru-laguntzetan eta erosketagatiko kenkarian. Beraz, konstatazio bat: Geroz eta gehiago da prestazioetara eta erosketagatiko kenkarira zuzentzen den diru publikoa eta geroz eta gehiago da alokairu babestu baten eskean Etxebiden izena ematen duen jendea merkatu librean etxebizitza bat eskuratu ezinean. Politika honek ez du funtzionatzen eta epe ertainera sostengaezina da.

Erreparatu diezaiogun azkenik babes publikoa duen etxebizitza parkearen egoerari. Erkidego Autonomoan, egun, babestutako 60.000 etxebizitza inguru daudela kalkulatzen da, erdiak inguru alokairuan (udalenak barne). Parke horri Bizigunekoak gehitzen zaizkio: 8.000 inguru etxebizitza libre Eusko Jaurlaritzak alokairuan jarriak. Eusko Jaurlaritzak agindu du legegintzaldi honetan 7.000 etxebizitza eraikiko dituela “alokairu eskuragarrikoak” (zilegi bekigu mesfidantza iragan legegintzaldian alokairura bideratutako 2.567 babes publikoko etxebizitza eraiki baitziren). Baina, datozen urteetan 5.200 etxebizitza inguru deskalifikatuko dira (2003. urtea baino lehenagokoak, babes publikoko kalifikazioa galtzen dutenak), eta ondorioz, kasurik onenean ere, babes publikoa duen etxebizitza parkea ez da apenas haziko, bere horretan mantenduko da gutxi-asko. Horrenbestez, etxebizitza merkatuaren egitura ez da aldatuko, ez gutxienez merkatuan nagusi den dinamika espekulatiboa baldintzatzeko adina.

Egoera honetan, erregulazioa mehatxu gisa ikusten du Eusko Jaurlaritzak honek aukera gisa bainoago: ez du alokairuaren prezioak kontrolatzeko, etxebizitza hutsak mobilizatzeko eta etxebizitza turistikoei topea jartzeko egungo araubideak eskaintzen duen potentzialitate guztia baliatu nahi.

Laburbilduz, Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza politika honakoa da funtsean: geroz eta prestazio gehiago eta geroz eta kenkari gehiago, eta babes publikoko etxebizitza parkea handitzeko inbertsio ez-nahikoa. Gainera, badira hiru gai kezka larria sortzen dutenak:

- Eusko Jaurlaritzak etxebizitza erosteko abalen programa abiatuko du Finantzen Euskal Institutuaren bidez, Etxebizitza Legeak baliabide publiko guztiak alokairura bideratu behar direla dioen arren. Nahikoa frogatua dago politika hau, herrialde anglosaxoietan “Help to buy” gisa ezagutzen dena, ez dela batere eraginkorra eta, batez ere, etxebizitza bat bigarren aldiz erosiko dutenek baliatzen dutela.



- Denis Itxaso Sailburuak legegintzaldi honetan lurzoru legea aldatu nahiko luketela adierazi izan du. Ez dakigu zer norantzan, zein helbururekin. Susmoa da plangintza urbanistikoetako babes publikoko erreserbak murrizteko asmoa dagoela.
- Alokairu eskuragarriaz hitz egiten da baina modu nahasgarrian. Diskurtso publikoan “alokairu eskuragarri” terminoa erabiltzen da edozein motako alokairu babestuari erreferentzia egiteko. Baina alokairu eskuragarria 2022ko urriaren 14ko Aginduan erregulatzen da, zeinak lankidetzako publiko-privatu forma jakin bat arautzen duen: Eusko Jaurlaritzak konbenio bat sinatzen du promotore pribatu batekin zeinari diru-laguntza bat ematen dion etxebizitza bakoitzeko honek etxebizitza hori prezio tasatuan alokairuan jartzearen truke denbora jakin batez (alokairu librea baino % 30 inguru merkeago, alokairu soziala baino garestiago). Denbora hori igarotzean etxejabeak etxebizitza sal dezake maizterrak kaleratuz. Baina, formula hau Etxebiden izena emanda duten eskatzaileen zenbatekoari zuzentzen zaio? Hala zioen Eusko Jaurlaritzak 2022an: (...) *Hala ere, badago beste biztanle-multzo esanguratsu bat, egiazki egungo babes-esparrutik kanpo geratzen dena, nahiz eta etxebizitza bat lortzeko zailtasun larriak izan: 7.000 familia-unitate baino gehiago dira, Etxebiden alokairu-eskatzaile gisa izena emanda daudenak, eta urtean 21.000 eta 39.000 euro bitarteko diru-sarreak dituztenak. (...) Izan ere, gure ustez, alokairu eskuragarria behar duten beste gizarte-sektore batzuei ere zabaldu behar dizkiegu ateak, inola ere alde batera utzi gabe baliabide gutxiengoa duen kolektiboari eman beharreko lehenetsunezko arreta, kontuan izanda, gainera, kolektibo horrek epe laburrean esku-hartze bereziak beharko dituela, pandemiaren ondorio negatiboak dirrela eta.* Denis Itxaso Sailburuak adierazi izan duenez, legegintzaldi honetan eraiki nahi diren 7.000 etxebizitza babestuetatik 3.000 inguru lirateke alokairu sozialekoak eta 3.000 inguru alokairu eskuragarrikoak. Hau da, esfortzu berdina egin asmo da gehien behar dutenen alde zein Etxebideren zerrendan gutxiengoa diren errenta maila altukoenen alde (2022an 7.000 ziren 80.000 ingurutik, egun proportzioa baxuagoa dela suposa daiteke). Susmoa da ez ote den lehenetsiko legegintzaldi bukaerako titularrak (7.000 etxebizitza babestu egin ditugu!) beharrezkoa zaigun etxebizitza tipologiari erreparatu gabe eta lankidetzako publiko-privatuko aukera hobeak baztertuz.

1994an, Euskal Autonomia Erkidegoa aitzindaria izan zen, neurri batean, babes publikoko erreserbak finkatuz Maturana legea izenez ezagutu zenarekin (% 65 lurzoru urbanizagarrian eta % 20 lurzoru urbano ez-kontsolidatuan), eta baita 2003an ere babes kalifikazioa iraunkor eginez. Ondorioz, Estatuko beste edo-

zein erkidegotan baino babes publikoko etxebizitza gehiago dugu gure lurretan. Baina, kasu, ez dezagun hegoaldera begira, Espainia azken putz baita europar testuinguruan babes publikoko etxebizitza kopuruari dagokionez. Eta, gainera, ez dezagun ahaztu, gaur egun, eskatzaileen gehiengo oso zabal batek alokairua eskatzen duela, ez baitu etxebizitza bat erosteko aukerarik (etxebizitza politika jabegoan oinarritu da Espainiari jarraiki, eta ondorioz, alokairu eskaintza oso urria da egun). Finean, azken urteetako Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza politikaren irakurketa kritikoak honakoa ondorioztatzera garamatza: Etxebizitzaren arloan ere, inoiz izandako lidergo publikoa lausotu eta korronte neoliberalak arrastaka eraman du Eusko Jaurlaritza.

### Etxebizitza politika publiko proaktiboa

Zein litzateke erronkaren tamainan legoken etxebizitza politika? Alokairura bideratutako babes publikodun etxebizitza parke ahalik eta zabalena osatzea da higiezinak desfinantzarizatu eta etxebizitza espekulazioaren gurpil zorotik partzialki atera dezakeen egiturazko politika. Nahikoa adostasun dago baieztapen horren inguruan. Viena etsenplu. Hori ez da, noski, egun batetik bestera egiten, areago iraganeko politika okerren ondorioak pairatzen ari garelarik (babes publikoa izan duten etxebizitzak deskalifikatzen ari dira oraindik orain, patrimonio publikoa esku pribatuetara transferituz eta merkatu espekulatioaren esku utziz). Horregatik, hain zuzen ere, ausardiaz egin behar da, kontuan hartuz inbertsio handia eskatzen duela eta gaitasun finantzario handia behar dela. Parke horren zati handi bat promozio publikoaren bidez osatu beharko da eta alokairu sozialera bideratu. Eta bestelako formula batzuk ere jarri beharko dira martxan, beti ere Etxebideko zerrendan dauden eskatzaileen profilari erreparatuz. Zentzu horretan, lankidetzak publiko-pribatuko formulak tentuz eta sakontasunez aztertzeko momentua da hau, formulazio errazetatik haratago pentsatzeko: lankidetzak publiko-komunitarioaren aukerak esploratzeko. Bada nondik ikasia, Bartzelonan azken urteetan egin dena bide-erakusle gerta dakiguke, [artikulu honetan](#) azaltzen denez. [Txosten honetan](#) luze eta zabal deskribatzen da bertan garatutako esperientzia.

Ezinbestekoa izango zaigu, halaber, eskala instituzional guztien arteko lankidetzak estua, bereziki udalen eta Eusko Jaurlaritzaren artean. Ahalegin berezia egin beharko da dagoeneko urbanoa den lurretan eragiteko, lurzoru naturala gehiago okupatzea ekidinez posible denean. Gure herri eta hirietan lurzoru urbanoaren hazkunde mugagabea planteatzea ez baita jasangarria. Dagoeneko urbanoa den eremuan alokairuzko babes publikoko etxebizitzaren parkeak hazteko marjina handia da, eta garabide eraginkorrago eta jasangarriagoa eskaintzen du.

Hau guztia kontuan hartuta, babes publikodun etxebizitza parkea handitzeari dagokionez, hauexek izan dira EH Bilduk Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuen negoziaketan mahai gainean jarritako proposamenak:

- Babes ofizialeko etxebizitzak (tanteo eta retrakto eskubidea baliatuz) edota etxebizitza libreak erostea (azken hauek prezio ekonomikoan erostea posible den kasuetan) alokairu sozialera bideratzeko (90 milioi euro), alokairu sozialeko parke publikoa handitze aldera.
- Alokairurako etxebizitza parke babestu ahalik eta zabalena eratzeko lankidetzatza publiko-pribatuko formulak aztertze konpromisoa hartzea. Gure inguruan planteatzen ari diren lankidetzatza publiko-pribatuko formula sinbiotiko eta ez-parasitarioen azterketa konparatibo bat egitea (lehentasunez aztertu beharreko kasuak: Nafarroako Nasuvinsa eta Bartzelonako esperientzia), 2022ko urriaren 14ko Aginduan arautzen den alokairu eskuragarria baino gizarte interes handiagoko lankidetzatza publiko-pribatuko moduak egon daitezkeela aintzat hartuz eta irabazi asmoa duten baina, batez ere, irabazi asmorik ez duten erakundeekin ezar daitezkeen lankidetzatza moduak aztertuz; eta, Etxebiden dagoen eskariari erantzute aldera, argi eta garbi definituz zer errenta nitxori zuzentzen gataizkion etxebizitza tipologia bakoitzarekin.
- Gure gaitasun finantzarioak (Finantzen Euskal Institutua, fundazio bankarioak) nola baliatu aztertze konpromisoa hartzea, alokairuko etxebizitza babestuari begirako finantzazio eta inbertsio aukerak bilatze aldera, Europako Inbertsio Bankuaren aukeraz gain.

Alabaina, babes publikodun etxebizitza parke zabal bat osatzen dugun bitartean ezinbestekoa da erregulazioa eta prezioen kontrola. Hemen denbora faktorea inportantea da: emantzipatu ezinean dabilzan milaka gazte ezin daitezke etsipenera kondenatu egoera epe ertain-luzera baino ezin alda daitekeela esanez. Gazteenaz gain, esku artean dugun errealtatea da dagoeneko alokairuan bizi diren familiek ezin diotela alokairuen prezioen igoerari aurre egin, soldataren parte gero eta handiagoak bideratzen direla alokairua ordaintzera. Hainbat herritar etxebizitza bat alokatzetik logela bat alokatzera pasa behar izan dira, eta alderik makurrenean daude hilabeteko alokairua ordaindu ezinik kaleratuak diren familiak.


Egoera honetan, merkatua interbenitu egin behar da eta prezioak jaitsi. Gainera, prestazioak jabeenganako errenta transferentzia itsu bat izan ez daitezen zein merkatu beltzik elikatu ez dadin, ezinbestekoa da prestazioak eta prezioen kontrola eskutik joan daitezela. Zentzu horretan, honakoak izan dira EH Bilduk negoziazio mahaiari jarri dituen proposamenak:


- Alokairuko prezioak arautzen dituen etxebizitzaren Estatuko legea hiru hilabeteko epean aplikatzea. Horrek esan nahiko luke 2025eko lehen hiruhilekoan alokairuen erregulazioa Euskal Herri osoan sartuko litzatekela indarrean:
  - Jaurlaritzak erreferentziazko prezioen indizearen sistema propioa garatzea, Foru Aldundiekin lankidetzan. Gure autogobernua balia dezagun, Kataluniak badu erreferentzia-prezioen indize propioa, zeina erreminta funtsezkoa den, adibidez, fiskalitatearen bidez alokairuaren prezioetan eragiteko.
  - EAEko eremu tentsionatuen analisiak osatzea irizpide guztiak kontuan hartuta, eta baldintzak betetzen dituzten eremuak izendatzea.
  - Tentsionatutako eremuetan jabe handien definizioa bost etxebizitzatarara murriztea.
- Hutsik dagoen etxebizitza mobilizatzea, alokairuan jartzeko:
  - Jaurlaritzak, hiru hilabeteko epean, udalei laguntza tekniko eta ekonomikoa emateko lerro bat sortzea, hauek etxebizitza hutsen dekretua aplikatu ahal izan dezaten (5 milioi euro).
  - Eusko Jaurlaritzak nahitaezko alokairura edo desjabetzera bideratutako neurriak abiaraztea inbertsio funtsen edo jabe handien eskuetan dauden etxebizitza hutsen kasuan, etxebizitza hutsen dekretuak proposatzen duen moduan.
- Kataluniako 3/2023 Dekretua erreferentziazkat hartuta, Turismo Legea aldatzea etxebizitza eta logela turistikoen lizentziak aldi baterakoak izan daitezzen, modu horretan lizentziak atzera bota daitezzen oinarri legala sortuz etxebizitza horiek bizitegi gisa erabil daitezzen. Halaber, iruzurra detektatzeko ikuskaritza indartzea.

Etxebizitza larrialdia bizi dugu, zeina lehen mailako arazo sozial bihurtu zaigun. Kontratu sozialak nonbaiten huts egiten badu etxebizitzaren alorrean gertatzen da hori: gizarte sektore zabalentzat etxebizitzarako sarbidea eskuragaitz bilakatu da, zeina oinarrizko baldintza den bizitza autonomoak garatu ahal izateko. Etika komunitario sendo batekin baino ezin dakioke egin aurre egoera honi, el-karkidetzaz zentzu inportante batekin. Iraganean garaiko erronka sozialei aterabide adimentsuak aurkitzeko gai izan den herri honek bere zentzu komunitarioa aktibatuz egin behar dio aurre XXI. mendeko gizarte erronka handienetakoa denari, etxebizitza larrialdiari, belaunaldi arteko elkartasuna oinarri hartuz. Kasu

honetan, gure alde dugu Euskal Herriaren eskala eta egitura sozioekonomikoa. Euskal Herria ez da Katalunia: gure ekonomiak ez du oraindik turismoarekiko halako dependentziarik (nahiz azken urteetako joerak alarmak piztu dituen) eta gure hiriguneen eskala maneia garriagoa da etxebizitza politika publiko bat garatzeko orduan. Egin dezagun bada!







**ehbildu**